

Urriaren 20an
URTEAN ZEHARREKO 29. IGANDEA

DOMUND: Bataiatuak eta bidaliak

Agurra

Jesus Jaunaren grazia eta bakea izan bitez zuekin.

Sarrerako oharpena

Jaunak bildu gaitu Eukaristian: Jaun berpiztuaganako fedea aitortzen dugunok, Haren Hitza entzutera eta Haren Gorputz-Odolak hartzera biltzen gara. Gure otoitzak beti entzuten dituen Jaunari entzuteko gonbidapena luzatuko zaigu gaur, bereziki: Bera dugu indar eta laguntza.

DOMUND, misio jardunaldia dugu gaur goiburu honekin "Bataiatuak eta bidaliak: Kristoren eliza misiolari munduaren erdian. Kristau bokazioaren funtsa da misiolari izatea eta egun honek horren kontzientzia piztea eta gure eskuzabaltasuna sustatzea du helburu.

Damu-otoitza

Has gaitezen, apal agerturik, Jainkoaren erruki gozoa onartzeko prestatuz.

—Jesus Jauna, galdua zegoena bilatzera etorria: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, zeure bizia guretzat eman duzuna: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, gizon-emakume guztiak biltzera etorria: erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizitzara

Otoitza

**Jainko ahalguztidun betierakoa,
egizu, Zuri eskainirik bizi gaitzela beti
eta bihotz leialez zerbitza zaitzagula.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

(Edota "Herrien Ebanjelizatzerako" A - Meza. Meza liburua 721-722. orr.)

**Jainko Jauna, zure Semea bidali duzu mundura egiazko argitzat;
isuri Beronek agindutako Espiritu Santua,
gizon-emakumeen bihotzetan egiaren hazia erein
eta fedearen aitormena sortarazi dezan;
eta egizu, denak, Bataioaren bidez,
bizi berrira jaio daitezela,
ezure herri bakarrean sartzea iritsi dezaten.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Hitzaren liturgiari oharpena

Otoitza, hau da, Jainkoarekin harreman bizia izatea beharrezkoa da. Fedean irautea, konfidantzaz bizitzea da, Jainkoarekin bat eginda, bere argitan, bere Hitza entzunez. Jaso dezagun arretaz bere mezu salbagarria.

Lehenengo irakurgaia *(Ir [Ex] 17, 8-13)*

Exodo liburutik

Egun haietan, etorri zen Amalek, eta borroka egin zien Rafidinen israeldarrei. Moisesek honela esan zion Josueri: «Aukera itzazu

mutilak, eta zoaz Amaleken kontra borrokara. Ni bihar mendi gailurrean izango naiz, makila mirarigilea eskuan dudala.

Egin zuen Josuek Moisesek esana, eta Amaleken kontra borrokara joan zen. Moises, Aaron eta Ur, berriz, mendi gailurrera igo ziren.

Moisesek eskuak gora zeuzkanean, Israel zen irabazle; eta eskuak beheratzean, Amalek. Moisesen besoak nekatu ziren eta, horregatik, harri bat hartu eta azpian jarri zioten, eta bera gainean eseri zen. Aaronek eta Urek besoei eusten zieten, batak alde batetik eta besteak bestetik; eta horrela, haren besoek jasoak iraun zuten iluntzeraino. Eta Josuek ezpataz hondatu zituen Amalek eta haren herria.

Erantzun-salmoa (Sal 120, 1-2. 3-4. 5-6. 7-8)

Ze-ru ta lu- rren E - gi - le - a, du - gu la-gun
ta zain - tzai - le - a.

Begiok mendietara jasotzen nik:
laguntza niri nondik?
Jaunagandik nire laguntza,
Hark egin baititu zero-lurrak. R/.

Ez dizu oina kolokan utziko,
zure zaintzaileak ez du kuluxkarik egingo.
Israel zaintzen dagoena
ez du kuluxkak hartuko, ez loak. R/.

Jauna da zure zaintzaile,
Jauna duzu eskuinaldetik itzalpe.
Ez zaitu joko egunez eguzkiak,
ez gauez ere ilargiak. R/.

Jaunak zainduko zaitu gaitz guztitik,
zainduko zure bizia heriotzatik.
Zure sartu-aterak Jaunak zainduko ditu,
oraindanik betiko. R/.

Bigarren irakurgaia (2 Tm 3, 14 – 4, 2)

San Paulo Apostoluak Timoteori

Anaia maite: Zaude sendo, ikasi eta sinetsi duzun guztian, gogoan harturik, norengandik ikasi dituzun, eta gainera umetandik ezagutzen dituzula Liburu Santuak. Hauek eman diezazukete, Kristo Jesusengan sinetsiz, salbamenera daraman jakinduria. Liburu Santu guztiak Jaungoikoaren argiz eratuak baitira, eta erakusteko, egia argitzeko, zuzentzeko eta zuzentasunean hezitzeko egokiak dira; horrela, Jaungoikoaren gizona edozein eginbehar onetarako bikain moldatua gertatzen da.

Jaungoikoaren aurrean agintzen dizut, eta biziak eta hilak epaitu behar dituen Jesu Kristoren aurrean, Honen etorrera eta erregetzagatik: zabal ezazu hitza; ekin, egoki denean eta ez denean; gogor egin, estu hartu, eskatu pazientzia handiz eta erakutsi nahiz.

Aleluia (Hb 4, 12a. d)





Bizia da Jaungoikoaren hitza eta eragin korra
 bihotzaren erabaki eta asmoak
 epaitzeko gai dena. R/.

Ebanjelioa (Lk 18, 1-8)

Homiliarako argibideak

Zuzentasuna nagusituko da, Jainkoari esker

Egiazko askatasuna eta giza eskubideak aitortuko dituen gizarte bidezkoago baten bilaketa, izan da, neurri handi batean, garai modernoko historiaren motorra, anaitasunezko gizarte baten bilaketa, alegia. Kristauek abentura horretan parte hartu dute, eta ikusi dute **ahulenen eta beharrean daudenen alde** egiten duen heinean dela gizartea bidezkoa eta bihozbera.

Sortu dugun gizarteak gazteak eta adinekoak alde batera uztea gaitzetsi ohi du Frantzisko Aita Santuak. Kristauok ez dugu utzi behar beste mundu bat posible den itxaropena lapur diezaguten. Otoitzaren bidez eutsi behar diogu. Erregetza etor dadin eta Jainkoak berak hautatuekin justizia egin dezan **egin dute otoitz** kristauek, eta otoitz egiten dugu, oraindik ere. Batzuei, Jainkoaren existentziaren kontrako argudio erabakigarriena iruditzen zaie mundu bidegabe hori, eta uste dute otoitz egitea denbora galtzea dela; beste batzuentzat, berriz, bidegabean aurkako indarkeriarik gabeko **arma boteretsua** da otoitza.

Munduaren historia Jainkoaren esku dagoela eta zentzu bat duela aitortzen du gure fedea. Ez da gertakari batzuen jarraipen hutsa, arrain handiak txikia jatea, edo, Unamunok esaten zuena: "Jainkoak

gaiztoei laguntzen die, onak baino gehiago badira". Jainkoarentzat ez dago ezinezkorik eta bere aldekoen ongiuz arduratzen da Hura (Ir 17,8-13). Gaurko parabolak gizarte bizitzatik hartutako adibidea dakar (Lk 18,1-8). Zoritzarrez, ohikoa da beti. Pertsona asko etsita sentitzen dira **justiziaren bila**. Maila guztietara jotzen dute, eta ukatu egiten diete beti. Gutxi batzuek pentsatzen dute, ordea, Jainkoarengana jotzea eta euren kausa Hari eskatzea. Ebanjelioko alargunak ongi islatzen du **ahulek** indartsuen zinismoaren aurrean sentitzen duten **ezina**. Azkenean, justizia egingo du epaileak, emakumea begi bistatik kentzeko eta egunez egun manifestazio edo eserialdi bat jasan behar ez izateko.

Ebanjelioak argi eta garbi dio epailea ez dela justua, Jainkoa ez bezalakoa dela. Jainkoak justizia besterik ezin du egin bere hautatuekin. Eta azkar egingo du. **Jainkoaren Erregetza** datorrela sinesteak justizia ezartzea posible dela pentsarazten du. Ez da automatikoki gertatuko, noski; gizakiek ahalegindu behar dute justizia eraikitzen.

Baldintzetako bat adierazten du ebanjelioak: **fedea edukitzea**. Mundua alda daitekeela sinetsi behar da, beste mundu bat eraiki daitekeela. Horixe adierazten zuen alargunak ere, justizia etengabe eskatuta. Ez zuen onartzen, inolaz ere, gauzak aldatu ezin izatea, gauzek zeuden horretan jarraitzea. Etengabe eta sinetsita otoitz egitea da Jainkoaren aurrean erreklamatzeko. Jainkoak **historia etengabe aldatzeak** ematen du konfiantza, boteretsuak euren tronuetatik kentzeak ea pertsona xumeak goratzeak.

Fedea hoztu egiten da, ordea, eta Jainkoaz ahazten gara. Hori da arazoa. Beharrezkoa da fedea eta **otoitzarekiko** konfiantza elikatzea. Ebanjelioko azken galderak zalantzan uzten gaitu guztiok: Gai izango ote gara fedeari Gizonaren Semea etorri arte eusteko? Hark

ezarriko du behin betiko justizia, baina ari da dagoeneko poliki-poliki ezartzen, pertsona zuzen guztien laguntzarekin.

Maximum illud misioari buruzko idazkiak 100 urte betetzen dituela eta Frantzisko Aita Santuak ezohiko hilabete misiolaria ospatzea nahi izan du. Arduraz jokatu eta gure kristau izatea gure baitatik atera eta besteen zerbitzura jarritzeko deia egiten zaigu. **Bataiatuak bidaliak** gara, munduan barrena Berri Ona eramanez, bihotzean, ezpainenetan eta bizitza osoan, jasotako dohain zoragarria denez. Misio lurretan bizi diren misiolariak ditugu eredu eta akuilu, kristau guztiona den egiteko hau gogoz eta kemenez bizitzeko, Kristo Piztuaren indarra bazter guztietara eramanez.

Eukaristian, Semea, mundu honetako boteretsuen biktima, hilobitik atera zuen Jainkoaren ekintza askatzailea eguneratzen dugu. Piztueraren indarrak mundu bidezkoago baten alde, anaitasunezko mundu baten alde egitera eraman gaitzala.

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok: egiogun otoitz gizaki guztien ona nahi duen Jainkoari:

- Jaunak fededunen bihotzak sutu ditzan, Berri ona zabalduz gizaki guztien salbamena eta poza bilatzeko. Eska diezaiogun Jaunari.
- Herriak eta arrazak zatitzen dituzten oztopoak gaindituz, gizadi osoa berdintasun eta justiziaz bizitzen saia dadin. Eska diezaiogun Jaunari.
- Misiolari guztien alde, Jesusen antzeko izatea bedi beraien poza, Ebanjelioaren zerbitzuan besteentzat biziz. Eska diezaiogun Jaunari.
- Etorkinak eta iheslariak, gizarteak baztertzen dituenak eta abandonatuak diren guztiak senti daitezen Jaunak babestuak eta guztiok onartuak. Eska diezaiogun Jaunari.

—Jainkoak bere maitasunean sendo gaitzan, elkarren zerbitzari leialagoak izanik Kristoren antz handiagoa izan dezagun. Eska diezaiogun Jaunari.

Jainko Jauna, Moisez Zure zerbitzariaren bidez garaipena eman zenion zeure herriari, ikus otoitzean bildua dagoen Eliza eta egizu Israel berriak aurrera egin dezala beti gaitz guztiak gaintuz, Zure zain bizi direnen alde egingo duzun ordua iritsi artean. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Eukaristiaren liturgiari oharpena

Oparigaiak dakartzagu aldarera, Jesus Eukaristian presente egin dadin. Geure eskuzabaltasuna ere orain agertuko dugu, diru-bilketa egitean gaur DOMUND dela gogoratu.

Jaunartze-ondorengo otoitza

**Eukaristia ospatzea balia dakigula, Jauna,
bizitza honetarako laguntza izan dakigun
eta betikorako argi
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

(Edota "Herrien Ebanjelizatzerako" A - Meza. Meza liburua 721-722. orr.)

**Erospeneko sakramentuaz janaritu gaituzu, Jauna;
betiko salbamenaren janari honek
gorde gaitzala beti egiazko fedean.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**